

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak izango dituen baliabideak ongi finkatzea garrantzitsua izango da, garapen egoki bat izan dezagun. Funtsezko baliabideen bitartez balorezko proposamena garatu ahal izango dugu. Honela bezeroengana iritsiko gara eta bezeroekiko harremana mantenduko dugu. Azkenik, modu horretara diru sarrerak lortu ahal izango ditugu. Funtsezko baliabideak hainbat motatan determinatzen dira. Jarraian azalduko ditugu:

Baliabide fisikoei dagokienez gure enpresa hasieran txikia izan arren, bere eboluzioa eta hedapena azkarra izatea espero dugu. Horretarako hasteko instalazioa Xabat taldekiadearen garajea izango da, bertan egingo dugunez, hasieran ez ditugu

elektrizitatearen edo alokairua bezalako gasturik izango. Garajeen gure enpresaren ekintza gehienak landuko ditugu, hala ere, interneteko gauza batzuk egiteko ez da beharrezkoa izango garajera joatea egunero, etxetik ahal egingo litzake. Etorkizunean, gure langileek guk erosiko dugun industria nabe batean lan egingo



dute, gure etekinak handitzen direnean. Lehen pausoetan, Xabaten garajeen, ez dugu bulegorik edukiko eta bezeroen deiak garajeen egongo den telefono baten bidez erantzungo ditugu, hedatzen garenean aldiz, nabe industrialen bulego txiki bat egingo dugu bertako langilearentzat, baliabide guztiak ahalbidetuko ditugu telefona, ordenagailua.... Ibilgailuei dagokionez “Correos” enpresaren zerbitzuak kontratatuko genituzke, hasieran modu xumeagoan produktuak garajeen pilatu eta garraiatzeko garaia heltzerakoan guk eramango genituzke produktuak kamioiera. Enpresa garatzean, nabe industrialeko gune batean produktuak bilduko genituzke eta ondoren gure langileek transportatuko dituzte kamioia arte. “Correos” enpresarekin kontratatutako zerbitzuari esker, gure ekoizpenaren produktuak bezeroengana kondizio hoberenetan iritsiko lirateke. Bulegoari esker ere, bezero bakoitzaren egoera analizatu eta ebaluatuko genuke, kasu bakoitza partikularki aztertuz, bizitzen den pisuaren arabera grua behar ote duen edo ez,

Baliabide intelektualari dagokionean, fisikoak ez diren beste baliabideak dira. Esate baterako, beste markekin egingo ditugun elkarteak: *Media Markt*-ekin izango dugun akordioa oso garrantzitsua izango da, beharrezko materialak eskuratzen lagunduko digulako.

Horretaz gain, merkatuan hastapenak egiten lagunduko digute gure produktua beraien denda fisikoetan salduz. Gehitzeko, *Vanish* eta *Talleres Juan Ibañez*-ekin ditugun elkarteak ere bai, hoietatik hainbat abantail lotzen ditugulako.

Giza baliabideei erreparatuz, gure enpresak gehien behar duena langileen ezagutza da, gure produktua, hau da, "Eco Bike"-a produzitzeko hura egiten jakiten duen mekaniko bat beharko dugu, izan ere, edozeinek ez ditu jakintza mota espezifikoko hoiak. Horrez gain, sormena ere behar dugu, gure produktua pertsonalizatzeko aukera ematen dugunez, hau egiten beharrezkoa den ezagutza eta sormena beharko dugu, sormena gabe, ezingo dugulako ezta diseinu bat ere asmatu. Bestalde, garrantzitsua da ere gaitasun komertzialak dituen langileak edukitzea. Eta amaizteko, gure enpresa kideak gaitasun komertzial handia dute, eta hau dakigu beste enprekin hiru elkarte lortzeko oso ondo saldu behar duzulako gurea bezalako enpresa txiki bat saltzeko.

"*bMhiX*" enpresaren finantza-baliabideak kreditu bidez izango dira. Interneten bidez salduko dugunez, egokiena bezeroek internet bidez ordaintzea izango litzateke eta ez eskudiruz. Baina, beti ere salbuespenak egin ahalko ditugu eta adibidez kreditu bidez ordaindu ezin dezaketenei eskudiruz ordaintzen utziko diegu.

Ondorioz baliabide intelektualak zein fisikoak ezinbestekotzat hartuko ditugu gure proiektua aurrera eramateko. Horretaz gain, beharrezkoak izango dira gure taldearen giza baliabideak, eta horiek aprobetxatzea eta enpresaren finantza baliabideak finkatzea, horrela gure proiektua errazago garatu ahal izateko.